


2017-02-22

 Iritsi da aurten ere [World Press Photo](#) sariketaren emaitza jakiteko unea, eta iritsi da berriro, bata bestearen ondorio logiko balira bezala, argazki irabazlearen inguruan sorturiko [polemika](#).

Hasteko, esan nahiko nuke, nire ustez, polemika gehienetan sari nagusia jaso duen (World Press Photo Of The Year/ Urteko World Press Photoa) argazkiaren inguruan bakarrik sortzeak, erakusten duela ez dagoela benetan sariketaren emaitzak modu serio batean aztertu eta kritikatzeko asmoa, baizik kritika arina, erraza, ohiturazkoa, egin beharrekoa...



Lehen apunte horren ondoren, gatozen aurtengo sari nagusia jaso duen argazkia eta haren inguruko eztabaida zehaztera:

[Burham Ozbilici](#) fotokazetari zailduak Associated Press agentziarentzako egin zuen ["Erailketa bat Turkian"](#) argazkiak jaso du saria. Gertatutakoa hau izan zen: Errusiako enbaxadak argazki erakusketa bat antolatua zuen Ankarako arte modernorako *Cagdas Sanat Merkezi* aretoan. Erakusketaren aurkezpen ekitaldian, Turkian Errusiako enbaxadore zen *Andréi Kárlöv* mostraren nondik norakoak esplikatzen zebilen bitartean, *Mevlut Merts Altintas* Turkiako polizia kideak tirokatu eta larriki zauritu zuen. Tiroak bota ondoren, gazteak *"Al-lahu-àkbar* (jainkoa handia da). Ez ahortzi Alepo, ez ahortzi Siria" ohikatu eta segurtasun lanak betetzen ari ziren polizia turkiarrek bertan hil zuten. *Merkezi* enbaxadorea ospitalean zendu zen, jasotako tiroen ondorioz.

Siriako gerra zibilaren inguruan Turkia, Errusia eta Iranek egin behar zuten bilera baten testu inguruan kokatu zuten eraso adituek, Errusiak Alepo hirian eginak zituen eraso militar batzuen aurkako salaketa bezala.



Bertan zegoen *Ozbilici* argazkilariak [kontatu duenez](#), pareta baten atzean ezkutatu eta bertatik egin zituen argazkiak. Argazkietan *Altintas* gaztea ageri da, enbaxadorea hil ondoren, keinu ezberdinak eginez, jendea ikusten da, ahal duten moduan beraien buruak babesten eta azkenik erasotzailea hilda lurrean.

Argazki horietako bat berehala zabaldu zen sareetan eta hurrengo eguneko egunkari gehienetan. Bertan *Mevlut Merts Altintas* gaztea ikusten da, alkondara zuri eta traje beltza jantzita, ezker eskua altxatuta, behatz erakusleaz goia seinalatuz, eskuineko eskuan duen pistola lurrera begira eta ahoa zabalik, indarrez zerbait oihukatzen. Atzean *Andréi Kárlöv* enbaxadorea ikusten da, lurrean erorita, besoak zabalik, baina ez zaio aurpegirik ikusten eta ez da odolik antzematen.

Honaino abenduaren 19an gertatutakoa, gero World Press Photo saria etorri da, eta ondoren eztabaida.

Egia da eztabaida bat baino gehiago izan direla, talde batek edozer 'urteko onena' bezala izendatzen duenean gertatu ohi den bezala. Batzuen ustez baziren argazki hobeak, beste batzuek ziotenez, gertakari huts bati saria ematea baino, azken urteetan egin den bezala, arazo jarraitu edo gertakari luze bati ematea egokiago zatekeen. Badira ere argazkiak erreala ematen ez duela diotenak, eta WPPk beste estetika bat saritu beharko lukeela diotenak... Gustu kontuak dira, bai [saria eman diotenarenak](#), sariaren alde azaldu direnenak edo kritikatu dutenenak, ezer berririk ez; baina izan da kritika edo gaitzespen korrante bat ez nauena hain lasai utzi. WPP sariketako epaimahaiko kide izan den *Stuart Franklin*, Magnum agentziako buru ohiaren [iritzietatik](#) hasi eta han eta hemen zabaldu dira irudia saritu izanagatik deontologiaren inguruko kritikak.

Eztabaida ez da berria, gaitik gehiegi urrundu gabe, ISISeko kideek egin eta zabaldutako buru

2017-02-22

mozketen irudiekin ere eztabaida hori badago: argitaratu behar al dira? Argitaratzea ez al da gertatutakoari propaganda egitea? Ez al dio, nolabait, egindakoari zilegitasuna ematen?

World Press Photoko epai-mahai buruak argi azaldu du: "[Guk argazkia saritu dugu, ez ekintza](#)". Baina ez dut uste eztabaida zilegitasun kontziente eta borondatezkoa emateari buruz ari denik, baizik eta, gure asmoa kontrakoa izanik ere, gure gogoz kontra bada ere, ekintzari zilegitasunik ematen ote diogun, edo saihestu zitekeen zabalkundea. Ez da erraza eztabaida, baina nik ezberdintasun batzuk markatu nahiko nituzke. Estatu Islamikoko soldaduek, beraiek egindako hilketen irudiak grabatu eta zabaltzen dituztenean, egilea ekintzari lotuta dagoen aktibo bat da, irudi horiek helburu 'propagandistiko' zehatz batzuei jarraikiz grabatu eta zabaldu dituen.

Kasu hau ez da horrela, kasu honetan argazkilariak ez baitauka inolako loturarik ekintzailearekin, nahiz eta onartu beharra dugun erailketa egiteko unea eta modua aukeratu izanaren azpian, seguruenik, bertan kazetariak izatearen arrazoia dagoela. Irudiak ez ditu *Atlintasen* taldeko batek hartu eta zabaldu, baina irudiak izan, izango zirela eta mundu osora zabaltzeko modu erraz eta zuzena izango zela bermatzen zuen inguru batean egin zuen atentatua, irudiak zabalduko zirenen jakitun eta zabalduak izateko intentzioarekin. Irudi horiek prentsara zabaltzeak, zilegitasuna ematen dio atentatuari?

Ba al dago alderik (zilegitasuna emateari buruz ari garelarik) argazkiak bere garaian prentsan azaldu izanaren eta argazkia saritu izanaren artean?

Iritzi batzuek diote, bere garaian, argazkiak bete beharreko funtzioa bete zuela, baina gaur, 'argazkirik onena' bezala saritzean, merezi ez duen, edo ekidin zitekeen ibilbide berri bat eman diola irudiari. Horrek, agian, zilegitasuna ez, baina propaganda egiten diola erailketari. Ikonikoa bihurtzeko ezaugarri guztiak dituen irudi batek, ez al du bere bidea egingo, saririk gabe ere? Zein argazki duzue buruan, iazko WPP saria irabazi zuena edo *Aylan* hondartzan hilik azaltzen zen hura?



Warren Richardson-en 2016ko World Press Photo of the year eta *Nilüfer Demir*-ek *Aylan* Kurdiri ateratako argazkia.

Badira ere argazkia bere garaian argitaratzea akatsa izan zela dioten ahotsak, baina baita argitaratzea defendatu zutenak ere; New York Times egunkariko editore *Phill Corbette*k, argazkia azalera ekarri izana [defendatu zuen](#) (AEBetan, azalean irudia argitaratu zuen egunkari bakarra izan zen).


Esan da prentsan argitaratze hutsak merezi ez duen zabalkundea ematen diola atentatuari. Hori argazkiekin bakarrik gertatzen da ala informazioa emateko beste moduekin ere? Argazkia argitaratu ez baina hitzez atentatuaren berri ematearekin ez al zaio berdin berdin zabalkundea ematen gertatutakoari? Izugarritzko indarra duen argazki hau argitaratu beharrean, beste irudi bat argitaratu izan balitz, atentatuaren oihartzuna txikiagoa izango al zen?



Modu batean, hemen, geurean, orain urte batzuk gertatzen zen arazo bat ekartzen dit gogora: zenbatetan esan izan da ETaren atentatuei prentsan ematen zitzaion garrantziarekin, ETak bilatzen zuen bozgorailua jartzen zitzaion parean? Izango ote zuen zentzurik ETaren ekintzak aipatzen ez dituen informazio jarrera batek? Atentatuen berri emateak, atentatuei zilegitasunik eskaintzen zion? ETaren atentatuen inguruko argazkirik argitaratu ez eta TB ezberdinetako tertulietan ematen ziren ordu luzeak kontutan izanda, ba ote zuten argazkiek bozgorailu hori indartzeko ahalmenik?

Iazko Zinemaldiaren inaugurazio ekitaldian euskal presoengatik inguruan egin ziren ekintza

2017-02-22

 aidarrikatzaileak bertan zeuden hedabideen indarra baliatzeko helburuarekin egin ziren. Irudi horiek zabaltzeak, ematen al dio zilegitasunik ekintzari? Argazki horiek zabaltzen dituzten hedabide edo agentziak, lerratzen al dira ekintza egin zuten pertsonen helburuekin? Ekintza horiek, ondorio larririk sortu ez zuten, hedabide askok ez zituzten aipatu eta bozgorailu ez izatearen erabakia hartu zuten, baina berdin jokatu ote zuten, Donostiako alkateari tarta bat bota izan baliote? Edo 4 neska biluztu izan balira? Ez argitaratzea ez al da argitaratzea bezain zilegi?

Arazo baten izatea jakinarazteko egindako ekintza baten zabalkundeak, arazo horrekin lerrokatzen gaitu?

Zer da garrantzitsuagoa, jendeak gertatu den zerbaiti buruzko informazioa izatea ala informazio hori jakiteak gertakari horri jartzen dion bozgorailua? Informatzea ez al da zabaltzea, hedatzea, jakinaraztea?

Non jarri behar dugu jakitera ematen dugun horren muga, ekintzaren gordintasunean? Inplizitu edo esplizituki ekintzari edo haren atzean dauden arrazoiei ematen diegun zilegitasunean? Geurek edo besteek egiten dutela ebaztean? Gaur egun hedabideetan erakusten zaizkigun gauza gehienak ez al dira hedabideetan zabaltzeko modu eta unean pentsatu, diseinatu eta gertatu?

Eztabaidaren berri izan nuenean sare sozialetan idatzi nuen bezala, ez dut [eztabaida](#) ukatuko, ez dut esango deontologiari dagokionez kezkarik ez dagoenik, baina posizionatze batzuk oso arinak iruditu zaizkit; gaiztoa oso erraz detektatuta dagoenean izaten dugun egoera eroso horretatik...

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)